

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EHUagenda 2030

GARAPEN
IRAUNKORRARI
EKIN



AURKIBIDEA

Hitzaurrea	4
Logika interkonektatuak eta ibilbide orriak	6
IKD i3: oinarrizko ideia	9
Berdintasun Campusa	12
Inklusio Campusa	17
Planeta Campusa	22
Hasierako egoera: 2017/18 ikasturtea	27
Adierazleen panela	28

HITZAURREA

Unibertsitateek hiru mandatu nagusi bete behar dituzte: irakaskuntza, ikerketa eta inguruari egin beharreko ekarpena, hirugarren egitekoa ere deritzona (transferentzia, zerbitzua, lidergoa, etab.). UPV/EHUren hiru egiteko horiek erakundearen Estatutuetan jasota daude, eta haren politikak egin-kizun horiek bete behar dituzte, egoki eta arduraz, ekarpen eraginkor bat egiteko euskal gizartearen eraikuntza eta eraldaketari.

Hori bai, mandatu horiek beren testuinguruan kokatu behar dira, eta birpentsatu eta birplanteatu une historiko bakoitzean. Gaur egungo gizarteak eskatuta, unibertsitateak zorrotz eta sakon aztertu behar ditu bere egoera eta beharrak, eta ikusi behar du nola orientatu bere politikak, ikuspegi zabal batez, bere helburu handinahiak epe ertain-luzera betetzeari begira.


Inguratzen gaituen errealitatean, harrigarriki kontrajarriak diren ikuspegiak eta egoerak aurki ditzakegu. Alde batetik, hazkunde esponentzial bat bizi dugu jakintzaren arloan eta gizarte, ekonomia eta kultura bizitzarako aplikazioetan, ongizatea eta aberastasuna dakartzana; bestetik, ordea, giza eskubideen urratze larrien lekuko gara: hala nola

pobrezia, desberdintasuna, aberastasun naturalen eta kulturalen usurpazioa, emakumeen eta gutxiengoen kontrako indarkeria, edo krisi humanitario eta ekologikoa. Birpentsatu eta berrorientatu egin behar ditugu gizakion harremanak –geure artekoak nahiz naturarekikoak–, gaur egungo gure bizimoduak sortzen duen giza sufrimendu eta sufrimendu ekologiko handia arintze aldera. Egunerokoan bizi ditugun kontraesan larri horiek erantzun sendo behar dute, erantzunkidetasunetik, eta unibertsitateak zuzenean parte hartu behar du haien analisi eta ebazpenean.

Unibertsitatean egunero irakatsi, ikertu, ikasi eta lan egiten duten pertsonak saiatzen dira irtenbideak bilatzen arazo horiei, ikasgeletan, laborategietan, praktiketan eta kudeaketa postuetan. Unibertsitateko kideak ez daude libre kontraesan horietatik. Hala eta guztiz ere, orain badakigu ahalgin partikular horiek beharrezkoak izanagatik ez direla nahikoak. Azken bi hamarkadetan, nazioarteko agendek agerian utzi dute konpromiso bateratu eta adostu baten premia larria, gizadiak egun dituen arazo handiak konpontzeko. 2015ean, Nazio Batuek sortu zuten **Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda**, Garapen Iraunkorrerako 17 Helburu (GIH) barne hartzen dituena: hots, hipotetikoki gizadiaren etorkizuna bermatuko duten gakoak. **Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendak** 193 estaturen atxikimendua jaso zuen, eta beren gain hartu zuten agenda betetzeko behar diren baliabideak jartzeko konpromisoa, pertsona txiroenen eta ahulenen beharrei erantzutea helburu duten aliantzen bitartez¹. Makro politikako egitasmo hau maila ertainetara zabaldu behar da, eta horren adibide da **Euskadi Basque Country 2030 Agenda**², abiapuntu bat ezartzen duena gobernu autonomikoko parametroetan.

1 <https://news.un.org/es/story/2015/09/1340191>

2 <http://www.euskadi.eus/pdf/agenda-euskadi-basque-country-2030.pdf>



UPV/EHUrentzat, beste erakunde askorentzat bezala, GIHak kontuan hartzeko esparru bat dira, non koka baitezake egun garatzen ari den programa multzo zabal bat. Hori horrela, GIHak gure izatean eta gure lanean daude, eta horren erakusgarri dira hainbat titulazio eta ikerketa, giza eskubideen kulturaren sustapena, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun politikak, garapenerako lankidetzak, ingurumen kudeaketa edo hirugarren sektoreko erakundeekin batera eginiko lana. Hala eta guztiz ere, eskas litzateke hor gelditzea. Izan ere, ez litzateke nahikoa izango, arazo multzoak bere horretan diraelako. Gure helburua ezin da izan GIHak bihurtzea dagoeneko egiten dena legitimatzeko estrategia bat. Hori ez da gure helburua.

EHUagenda 2030 Garapen Iraunkorrari ekin, gogoeta baten emaitza da –gogoeta global nahiz tokikoa–, ibilbide orri bat, xedetzat duena lerrokatzea Unibertsitatearen lana eta planetaren desafio handiak, ekarpen bideragarri eta pragmatiko bat egiteko. Helburuak dira:

- Modu koherentean integratzea ikasleek, irakasleek, ikerlariak, teknikariek eta administrazioko langileek GIH alorrean egiten dituzten ahalegin partikularrak eta tokikoak, eta agenda garatzea, elkarlanean eta modu interkonektatuan, unibertsitatearen jarduera guztietara zabal dadin.
- Irakaskuntza-ikaskuntza, berdintasun, inklusio eta ingurumen kudeaketako politikak diseinatu eta garatzea, logika komun integratu baten bidez, epe ertain-luzera ebaluatzeko moduko helburu zehatzak ezarrita (2019-2025 eta 2025-2030).
- UPV/EHUren Garapen Iraunkorrerako adierazleen taula definitzea, lorpenak neurtu, monitorizatu eta era gardenean komunikatu ahal izateko.

- Inguruarekin aliantza politika bat egitea, GIHekiko erantzunkidetasuna indartzeko.

Hori horrela, dokumentu honek biltzen ditu ***EHUagenda 2030***-aren oinarri programatikoak; bereziki: haren filosofia, UPV/EHUren xedeekin artikulatzeko logika eta agenda osatzen duten sektore planak: ***IKD i³*** irakaskuntza-ikaskuntza ereduari dagokionez, eta ***Berdintasun Campusa, Inklusio Campusa*** eta ***Planeta Campusa***. Bigarren dokumentu batek, ***UPV/EHUko Garapen Iraunkorreko Adierazleen Taula*** izenekoa, unibertsitatean landuko diren GIHen jarraipena egiteko alderdi teknikoak bilduko ditu, baita haien monitorizaziorako lan metodologia ere.

LOGIKA INTER-KONEKTATUAK ETA IBILBIDE ORRIAK


Lehen galdera da nola artikulatu GIHak unibertitatearen jardueran, modu global eta eraginkorren, isolatuegi eta zatituegi dauden lan ikuspegi eta moduak gaingaituta. Alde horretatik, hainbat urrats egin dira jada, estaldura instituzionala emateaz gainera, urrats operatiboagoak egiten ere laguntzen dutenak.

UPV/EHUren 2018-2021 Plan Estrategikoak¹ –dotozen urteetarako unibertitate politikaren oinarri programatikoa– bere egin du iraunkortasunaren kontzeptuaren definizio global, interkonektatu eta eskalagarria, etorkizuneko aukera gisa hartu dena. Hala, ezarri diren helburuen artean aipa daitezke: **Unibertitatea garapen iraunkorra, inklusioa eta gizarte konpromisoa sustatzen duen erakunde bihurtzea** (Ardatza: Gizartearekiko harremana), eta

Ikasleen artean unibertitate balioak, lankidetzaz, berdintasuna, pentsamendu kritikoa, sormena eta gizarte konpromisoa bultzatzea, herritar gisa prestakuntza integrala jaso dezaten (Ardatza: Pertsonak). Bi helburu horiek mandatu zehatzak ezartzen dituzte integrazio norabide honetan.

Dena dela, GIH guztiek ez dute eragin bera unibertitate jardueran, eta unibertitateak ere ezin diezaieke helburu horiei neurri bereko ekarpena egin. Egia da –eta garrantzitsua da azpimarratzea– estua dela helburuen arteko barne lotura, helburu batek beste batera eraman behar gaituela eta konexio horiek lagungarri izan behar dutela arazoak beren konplexutasunean eta irtenbideak beren diziplinartekotasunean eta elkar mendekotasunean ikusteko. Nolanahi ere, agenda hau lantzeko modua zehaztuko duen ibilbide orri bat marraztu behar da.

Unibertitate jardueraren zati handi baten oinarrian dagoen helburu nagusia 4. GIH da (“Hezkuntza inklusiboa, bidezkoa eta kalitatezkoa bermatzea eta bizitza osoan zehar ikasteko aukerak sustatzea denentzat”), irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen arreta osoa biltzen duelako, haien bertsio zabalenean eta ulerkorrenean. Matrize honek 8. GIHren artikulazioa barne hartzen du, enplegarritasunera eta unibertitate hezkuntzak garapen ekonomiko iraunkorrari egiten dion ekarpena garamatzana, baita beste bi helburu ere: 16. GIH, giza eskubideei lotutako hezkuntza guztiari



¹ <https://www.ehu.es/es/web/idazkaritza-nagusia/plan-estrategikoa-2018-2021>



dagokiona, ezinbesteko elementua curriculum logikan, eta 17. GIH, garapenerako lankidetzaren eta gizarte konpromisoa eta transferentziaren esparru osoa barne hartzen duena.

Nabarmentzekoa da funtsezkoa dela UPV/EHuren tzat ardatz nagusi honetan euskararen eta euskal kulturaren garapena eta gaikuntza eleaniztuna. GIHetan esplizituki jaso ez den arren, gure ibilbide orrian 18. GIH gisa agertzen da, geure eginez **UPV/EHuren Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedraren ekimena**². Parametro hori guztiz frogatu den printzipio baten barnean ulertu behar da: hots, hizkuntza eta kultura aniztasunaren defentsa eta tokian tokiko hizkuntza gutxituen errespetua, biodibertsitatea bezala, garapen iraunkorrerako faktore agerikoak dira. Hezkuntza eleanitza, euskararen arreta berezia jarriz, euskal gizartean adostasun zabalenetako bat duen egitekoa da, eta hezkuntza sistemari dagokio, neurri handi batean.

Artikulazioak zentrokidea izan beharko luke, hiru plan sektorial hedatzen baitira unibertsitate prestakuntzako prozesuei nagusiki eragiten dien nukleo honekin batera:


- **Berdintasun Campusa** (5. GIH), Unibertsitateak emakumeen eta gizonen arteko berdintasun po-

litiketan duen esperientziaren gainean eraikia (zehazki, III. planari dagokiona).

- **Inklusio Campusa** (10. GIH), bereizkeriak murrizten ahalegintzen dena eta, aurreko kasuan bezala, aurreko bi inklusio planen gainean eraiki dena. Dena dela, kasu honetan, inklusioaren kontzeptua bera zabaldu da, eta barne hartuko du, orain arte bezala, ezgaitasunak dituzten pertsonen kolektiboa, baina baita beste pertsona batzuk ere, orain arte era sakabanatuan tratatu direnak: errefuxiatuak, zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonak, egoera zaugarrian dauden pertsonak, etab.
- **Planeta Campusa**, 3., 7., 9., 11., 12. eta 13. GIH barne hatzen dituen eta lehen aldiz unibertsitateak azken urteetan ingurumen eta osasun arloan landu dituen politika guztiak biltzen saiatzen dena.

Logika zentrokidea, beraz, **EHUagenda 2030**-aren ezaugarria da, eta elkar mendekotasunean oinarritutako erlazio komun bat ahalbidetuko du, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuetan batik bat, eta erlazio autonomo bat **Planeta, Berdintasun eta Inklusio Campus**-etan, modu intentsiboan landuko dituztenak alor horiek, campusez arduratuko diren zerbitzuen bitartez.

EHUagenda 2030-aren oinarrian dagoen logika zentrokidea integratzailea, zeharkakoa eta zehatza da. Logika horren eraikuntzak behartu gaitu,



2 UPV/EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen UNESCO Katedra (2018). Erakusketaren informazio-orria: **Garapen Iraunkorrerako Helburuak. Nazio Batuetako 2030 agenda. "17+1"**. https://www.ehu.es/documents/3120344/3356414/18+helbu+argumentuak_eus.pdf/d86eb94b-ce03-1575-d1e9-d5a8d401e5e8

ez bakarrik mapatzera eta ikustera jada zer egiten den, baita modu integratuagoan eta interkonektatuagoan egiteko moduak planteatzera ere. Gainera, zeharkakoa ere bada, ekintzek intersekzio nabarmenak dituztelako, lau "egitura" bereizi arren. Azkenik, zehatza da, erronka kuantifikagarriak dituelako, agendaren adierazleen taulan xehetasunez azaltzen direnak.

Agenda bururaino eramateko, saihestezinak dira kanpo eta barne aliantzak. Barne mailan, zeresana duten estamentu guztiez gainera, nabarmentzekoa da bereziki unibertsitatearen UNESCO Katedren ekarpena: **Garapen Iraunkorra eta Ingurumen Hezkuntza, Komunikazioa eta Hezkuntza Baliok, Munduko Hizkuntza Ondarea, Giza Eskubideak eta Botere Publikoak**, eta **Paisaia Naturalak eta Ondarea**³. Kanpo mailan, loturak estutuko dira beste gizarte eragile batzuekin (administrazio publikoak, gizarte aktoreak, enpresak eta beste kolektibo batzuk), aliantzak garapen iraunkorraren alorrean diharduten nazioarteko ikerketa-lankidetzarekin. Lotura horiek lankidetzaren puntualetatik harago joan beharko dute, eta lankidetzaren estrategikoko aliantza gisa operatu.

EHUagenda 2030-k epe ertain-luzera lan egingo du, helburuak 2030ean bete nahi direlako. Hala eta guztiz ere, dokumentu honek jasotakoa lehen epe bati begira (2019-2025) aplikatuko da. 2025ean, zer mailataraino bete den ebaluatuko da, eta 2025-2030 eperako mugarriak ezarriko dira. Nolanahi ere, urtero jarraipen txosten bat egingo da, helburuak betetzen lagunduko duten zuzenketak eta egokitzapenak egin ahal izateko.

³ <https://www.ehu.eus/es/web/gizartea/upv-ehuko-unesco-katedrak>

IKD i³: OINARRIZKO IDEIA



GIHak ibilbidea markatzen duten helburuak badira ere, Europako goi mailako hezkuntza datorren hamarkadarako bere ibilbidea zehazten ari da. Une honetan, aztertzen eta berrorientatzen

ari dira Europako Unibertsitate Eremua sortzean egin ziren politikak eta haien itzulpena unibertsitate sistemaren erreforman, kontuan hartuz jada kasu honetan arreta jarri beharreko puntuak. Europar Batasunaren Goi Mailako Hezkuntzarako agenda berriak (2017)¹ bere finantzaketa programak (Erasmus+, Marie Skłodowska-Curie Ekintzak, Horizon 2020 eta Europako Egitura eta Inbertsio funtsak) jarriko ditu lau erronken zerbitzura:

1. Aurre egitea gaitasunen garapenean dauden arrakalei eta, batez ere, konplexuagoak direnetan sakontzea: ikustea nola egin diezaiokeen ekarpena ikerketak irakaskuntzari –graduak eta graduondokoa–, edo gaitasun konplexuak garatzea mundu aldakor baten ezaugarri den erresilientziarako.
2. Goi mailako hezkuntza sistemak sortzea, integraztaileak eta konektatuak, aurre egiteko gero eta handiagoak diren gizarte desberdintasunei: sistema horietan sartzea sozio-ekonomikoki desabantailak dituzten kolektiboak, migratzaileak, hiriak eta eskualdeak garatzea, eztabaida publikoa giza eskubideei eta gizarte gaiei buruz...
3. Goi mailako hezkuntza erakundeek berrikuntza bultzatzea bermatzea: titulazioen garrantzia

areagotzea enplegarritasunari begira, aurrerapen zientifikoaren transferentzia handitzea, doktorego programak fokalizatzea enplegu sektorearekin elkarrekintzan.

4. Goi mailako hezkuntzako sistema eraginkorrak bultzatzea: irakaskuntza eta ikerketa jarduerak egokiak, berrikuntza, gizarte inklusioa eta konpromisoa sustatzea, eta lankidetzatza estutzea eskolekin, lanbide heziketarekin eta helduen hezkuntzarekin.

UPV/EHUk bere IKD eredu onartu zuen 2010ean²; hain zuzen, indarrean sartu zenean Europar Batasunaren Goi Mailako Hezkuntza politika. Orduz geroztik, hainbat erakunde programa sortu ditu, metodologia aktiboak eta berritzaileak sustatzeko, hezkuntza berrikuntzako taldeei laguntzeko (oinarrizko taldeak eta talde aurreratuak), bere irakasle irakats garapena indartzeko, irakaskuntza lana ebaluatzeko eta titulazioak nahiz ikastegiak akreditatzeko. Sortu dira kudeaketa tresnak eta laguntza eta orientazio materialak, eta batera eraikitzeko ahalegin handi bat egin da.

Nahitaezko jarraipen prozesuetatik harago, bi aldiz neurtu dira emaitzak espezifikoki: 2016an, Irakaslan Ebaluatzeko Zerbitzuak eginiko EHU bizi, inkesta bidez (une horretan gradua amaitzen ari ziren ikasleei pasa zitzaiena: 3.437 ikasle; % 54,82), eta 2019an, Praktiken eta Enplegarritasunaren Zuzendaritzak eginiko UPV/EHUren Zehar Gaitasunen Txostenaren bidez (irakasle eta koordinazio taldeek parte hartu dute). Emaitzek erakutsi dutenez, ikasleek hobekuntza bat nabaritu dute zehar gaitasun esanguratsuen garapenean, baina agerian utzi dute ere zehar gaitasun aurreratuak eta konplexuak

1 Batzordearen komunikazioa Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordeari eta Eskualdeen Batzordeari EBren goi mailako hezkuntzaren agenda berri baterako [SWD(2017) 164 final].

2 <https://www.ehu.eus/es/web/sae-helaz/ikd>

garatzeko formula berrien beharra (pentsamendu kritikoa, lidergoa, sormena, iraunkortasuna, eleaniztasuna eta multikulturalismoa).

Lehen urrats bat norabide horretan izan da **UPV/EHUren Gaitasun Orokorren Katalogoaren (2019)** argitalpena, zortzi gaitasun ezartzen dituen UPV/EHUren titulu guztientzat. Katalogo horrek esparru orientatzaile komun bat ezartzen du, zehatza eta operatiboa, diziplina eta titulu bakoitzak partikulari asimilatu beharko duena (gradua, masterra, doktoregoa eta etengabeko prestakuntza).

Horrekin batera, UPV/EHUren hezkuntza ereduaren berrirakurketa bat egin da, egungo orientazio pedagogikoetara egokitzeke, baita jada aipatu diren Europako politiken lehenasunetara ere. Emaizta **IKD i³** da ("i ber hiru": Ikaskuntza x Ikerkuntza x Iraunkortasuna); hau da, prozesu eta produktu ineditoak ahalbidetuko dituen termino bakoitzaren hazkunde esponentziala.

i³ ikaskuntza
ikerketa
iraunkortasuna

UPV/EHU Euskal Herrian ikerketa gaitasun handiena duen unibertsitatea da: 290etik gora ikertalde aktibo ditu, jakintza arlo guztietan, transferentzia gaitasun handia du ingurunean, eta master eta doktorego programa lehiakorak. Ikerketa eta transferentzia kapital horrek lotura malguago bat behar du titulazioekin, gradu eta master tituluekin bereziki, uste baitugu, gaitasun konplexuetan sakontzeko, ezinbestekoa dela ikasle guztiek eskuratu beharreko oinarrizko gaitasunen barnean ikeretzeko eta berritzeko gaitasuna sartzea. UPV/EHUK aukera ezin hobea du horretarako, eta dagoeneko egin dira esperientzia berezi batzuk.

Iraunkortasuna da formula esponentzial horren hirugarren osagaia, uste baitugu ez dela nahikoa ikeretzeko gaitasunaz biderkatutako ikasteko gaitasuna, baldin eta ez badira jomugan ipintzen planetaren desafio handiak, eta, une honetan, desafio horiek GIHetan barne bilduta daude. Beraz, ideia hauek, tentsio puntu hauek, unibertsitateko kide guztien buruan eta ekintzetan egon behar dute, eta egi-

turatu egin behar dituzte ikastaroak, irakasgaiak, programak, praktikak, laborategiak, mugikortasunak eta gizarte, ekonomia, ingurumen eta kultura inguruneekiko eztabaidak.

IKD i³ estrategia, horrenbestez, UPV/EHUK epe ertain-luzera bere hezkuntza ereduaren garatu nahi duen erantzuna da. Ahalegin berezia egingo da, besteak beste, zeregin hauetan:

- Era instituzionalean barneratzea UPV/EHUren zehar gaitasun komunen katalogoa, eta curriculumak doitzeko, planifikatzeko eta eguneratzeko programen bidez osatzea gradu, master eta doktorego ikasketetan eta etengabeko prestakuntzan.
- Gradu eta master irakasgaien irakaskuntza gidak eguneratzea, eta **i³** ekintzei ikusgarritasuna ematea.
- Ikerketan oinarritutako ikaskuntza (Inquiry-based Learning eta Research-based Learning) txertatzea metodologia aktiboetan.
- Ikasleengan prestakuntza eragin handia duten esperientziak sortzen dituzten programak edo egitasmoak finkatu eta zabaltzea (IKD Gazte programa³), autokudeatutako boluntarioratzeko esperientziak edo garapenerako lankidetzak praktikak (Gaztenpatia programa⁴).
- Curriculum nitxo zabalagoen aukerak arakatzea: sekuentzia izanik borondatezko praktikak/enpresetako praktikak/practicum + gradu amaierako lana/master amaierako lana/GIHen ikuspegitik ekarpen esanguratsuak egitea helburu duten doktorego tesiak.
- Gradu Amaierako Lan edo Master Amaierako Lan bateratuak egitea, unibertsitatearen desafio komun baten inguruan, Campus Bizia Lab programan egin den moduan⁵.
- Gradu Amaierako Lan edo Master Amaierako Lan bateratuak egitea, nazioarteko desafio komun baten inguruan. Jadanik ibilbide bat baduen lan ildo bat da; zehazki, Bordeleko Unibertsitatearekin, Ocean Zuzenbidea edo Ocean **i³** bezalako proiektuetan.


3 <https://www.whu.eus/es/web/ikdgazte/home>

4 <https://www.whu.eus/es/web/oficop/gaztenpatia>

5 <https://www.whu.eus/es/web/iraunkortasuna/campus-bizia-lab>

- Gradu Amaierako Lanen edo Master Amaierako Lanen zuzendarikideen ideia esperimentatzea kanpoko enpresa, erakunde eta ikertaldeekin (praktiken tutoretza egiten den moduan), halako moldez, non ikasleek aukera izango duten bertatik bertara ezagutzeko testuinguru errealak eta irakaskuntza-ikaskuntza harremanak edukitzeko kanpoko agenteekin (mentorizazioa).
- Gradu Amaierako Lanen eta Master Amaierako Lanen balioa nabarmendu eta kongresu gisa hedatzea; bereziki, iraunkortasuna trakzio elementu izanik, ekarpen inedito edo bereziki onuragarria egiten diotenak arazo edo erronka jakin bati.
- IKD irakasle talde egituratuak aitortzea⁶, irakaskaien, gaien edo moduluen irakaskuntza talde gisa ulertuak, ezaugarri dutenak irakaskuntza arloan emaitza onak dituen praktika berritzaile bat (Docentiaz programa⁷), baita ikasleen ikaskuntzaren ikuspegitik ere (arrakasta tasa, irakaskuntza metodologiak gogobetetzea).

Zerrendatu honen bidez, gure asmoa ez da mugatzea edo agortzea **IKD i³** estrategiak sortzeko eta hedatzeko dituen aukerak, eta soil-soilik nahi duguna da **EHUagenda 2030** gidatzen duten ikerketaren, ikaskuntzaren eta iraunkortasunaren arteko konbinazioaren gaitasun biderkatzailea iradoki eta orientatzea.



6 <https://www.whu.eus/es/web/berrikuntza-gizarte-konpromisoa-eta-kulturgintza-errektoreordetza/2018-ikdit-edikd>

7 <https://www.whu.eus/es/web/sed-iez/docentiaz>

BERDINTASUN CAMPUSA



EHUagenda 2030-aren lehenengo sektore plana¹ 5. GIHren garapenean oinarritzen da: generoen arteko berdintasuna lortzea eta emakume eta umeen ahalduak lortzea da, UPV/EHUK orain dela hamar urte baino gehiago sustatzen ari dena.

UPV/EHU, unibertsitate publikoa denez gero, konprometitu dago emakumeen eta gizonen berdintasunarekin. Horrela diote bere Estatutuak: ***UPV/EHUK emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatuko du bere baitan eta beharrezko neurriak hartuko ditu inor diskriminatua izan ez dadin arrazoi hauengatik: jatorria, etnia, sexua, erlijioa, iritzia, hizkuntza edo bestelako egoera pertsonal edo sozialen bat***. Horrez gain dio UPV/EHUK aintzat hartuko dituela honako printzipio hauek: ***aukera berdintasuna, aniztasunaren eta diferentziaren errespetua, genero ikuspegia txertatzea, ekintza positiboa, sexuari lotutako rola eta estereotipoak baztertzea, eta gizonen eta emakumeen ordezkaritza parekatua***.

Horrela, bada, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzeko bidean, 2006an, UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritza, bakar-kako kargu gisa, sortu zen (2006/06/15eko Gobernu Kontseilua), 4/2007 Lege Organikoak unibertsitateak berdintasunerako unitateak martxan jartzera bultzatu baino urtebete lehenago. Zuzendaritza hori konprometitutako talde handi baten lanaren fruitu izan zen: gehienak emakumeak, eta euskal gizarteko eremu eta arlo desberdinetan aukera

berdintasuna lortzeko borrokan ibiliak. Zuzendaritza sortu zenetik asko izan dira aurrera eramandako ekintzak, batetik, zuzendaritzari berari esleitutako eginkizunak betetzeko, eta, bestetik, legetan zehaztutako helburuak betetzeko; guztia unibertsitateko eremuan ezarrita.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako III. plan-ak ikusmuga dauka ***Garapen Iraunkorrerako 2030 Agendan***, 2015eko azaroan onartua Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusian; izan ere, agendan eraldaketarako ikuspegia jaso zen, ekonomia, gizarte eta ingurumen iraunkorra lortze aldera, eta, hain zuzen ere, UPV/EHUK hori du gidari dutozen 11 urteetako lanerako. III. plan honek halaber, erreferente dauka Europar Batzordearen 2016-2019 aldirako Programa Estrategikoa, eta emakumeen eta gizonen berdintasunerako bere konpromisoa.

Plan Estrategikoarekin (2018-2021) bat etorrira, ***III. plan*** honek ***II. planean*** egiteke geratu ziren ekintzak berreskuratu eta erronka berriak zehazten ditu. Plan honetan lehentasuna daukan gaia da genero ikuspegia eta teoria feminista kontuan hartzea irakaskuntzan, bai eta gradu amaierako edo master amaierako lanetan ere. Berrikuntzen artean, ondoko gaiak nabarmentzen ditu: batetik, zientziaren eta teknologiaren arloko bokazioen garapen goiztiarra, batez ere emakumeengan; bestetik, genero indarkeriei, jarrera sexistei eta genero arrazoiengatik jarrera diskriminatzaileei aurre egitea, horrela Genero indarkerien aurkako UPV/EHUren Protokoloa ezarri eta hedatuz. Planean jasotzen da genero eta orientazio arrazoiengatik aniztasuna errespetatuko duen unibertsitate eremua izatearen premia, eta gizarte eta lan harremanetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatuko duten neurriak aztertu, adostu eta ezartzeak daukan garrantzia.

¹ ***Berdintasun Campusa*** UPV/EHUren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako III. Planaren (2019-2022) bertsio laburtu bat da. Adierazleen definizio operatiboa jasota dago UPV/EHUren Garapen Iraunkorreko adierazleen taulan.

ARDATZAK, HELBURUAK ETA EKINTZAK

I. ARDATZA PRESTAKUNTZA

1.1. Genero ikuspegia eta teoria feminista irakaskuntzaren arloan barneratzearen alde egitea.

EKINTZAK:

- 1.1.1. Azterlan bat egitea zehazteko genero ikuspegiak daukan presentzia zientziaren arlo bakoitzeko titulazioetan, eta abiapuntu horretatik titulazio horietan genero ikuspegia curriculumean sartzeko aukera aztertzeke.
- 1.1.2. Berrikuntza programa bat garatzea diziplinarteko irakasle taldeak sortzeari begira, genero ikuspegia txertatuko dutenak beren ikerketa lanean eta ikerketarako prestakuntzan, hala euskarri birtualetan nola irakaskuntza modalitate mistoetan.
- 1.1.3. On-line prestakuntza osagarria eskaintzea unibertsitateko talde guztiei genero eta berdintasunaren arlokoak lantzeko, euskaraz eta gaztelaniaz, eta ikasleei kredituak aitortuta mailaren arabera.
- 1.1.4. Elkarlana bultzatzea, ikaskuntza komunitate irekien bidez, oinarri hartuta garapen iraunkorraren bosgarren helburua, hau da: genero berdintasuna.
- 1.1.5. Generoaren eta berdintasunaren arloko gaitasunak lerrotzea irakaskuntza-ikaskuntza estrategiekin (Ikaskuntza, Ikerkuntza, Iraunkortasuna).
- 1.1.6. Zientziaren arlo bakoitzeko graduetan irakasgai pilotu bat jartzea, irakaskuntza mistokoa, hautazkoa eta diziplina artekoa, euskaraz eta gaztelaniaz, berariaz lantzeko generoaren ikuspegia.

- 1.1.7. Hizkera inklusiboaren erabilera sustatzea UPV/EHUk argitaratutako irakaskuntzako materialetan.
- 1.1.8. Material sorta bat (gida, gida laburra eta bideoa) diseinatzea eta ematea lehenengo mailako ikasleei, euskararen eta gaztelaniaren erabilera inklusiboari buruzkoa.

1.2. Genero ikuspegia sustatzea gradu eta master amaierako lanetan.

EKINTZAK:

- 1.2.1. Irakasleen bidez, gradu eta master amaierako lanetarako generoari eta feminismoari buruzko gaien eskaintza zabaltzea.
- 1.2.2. Berdintasuneko Zuzendaritzatik master amaierako lanak bideratzea genero berdintasunaren arloan unibertsitatean bizi diren egoerak diagnostikatzeko eta konponbideak aurkitzeko.
- 1.2.3. Genero ikuspegia sartzeko gradu eta master amaierako lanak gidatzeko eta ebaluatzeko irizpideetan, kontuan hartuta, batez ere, hizkera inklusiboa.
- 1.2.4. Genero ikuspegia lantzen duten gradu eta master amaierako lanen garrantzia sendotzea Francisca de Aculodi eta María Goyri sarien bidez.
- 1.2.5. Saritutako gradu eta master amaierako lanak Berdintasuneko Zuzendaritzaren web gunean argitaratzea.
- 1.2.6. Urtero, ikasleen arteko topaketak antolatzea Garapen Iraunkorrerako Helburuak ardatz hartuta, topaketa horien bidez zabalkundea emateko bosgarren helburuarekin, hau da, genero berdintasunarekin, bat etorrita UPV/EHU defenditu diren gradu amaierako lanei.

1.3. Emakumeek ezagutza sorpenari egindako ekarpenak ikusgarri egitea.

EKINTZAK:

- 1.3.1. Irakaskuntza gidetan eta irakaskuntzako materialetan egile emakumeak agertzearen alde eta genero eta berdintasuneko baliabideak aipatzen dituzten datu bibliografikoak jasotzearen alde egitea.
- 1.3.2. Ikasleen artean zientzialari emakumeen ekarpenak hedatzea eta ikusgarri egitea, beren lan munduan eta gizartean erreferentziako eredu bilakatu daitezten.

II. ARDATZA. IKERKETA

2.1. Ikertzaile berriei eta prestatzen ari direnei laguntzea genero ikuspegidun ikerketa kultura sustatzeko.

EKINTZAK:

- 2.1.1. Ikerketa feministak eta generokoak eta genero eta orientazio arrazoiengatikoa aniztasuna aztergai dituzten doktorego tesiak egiten ari diren ikasleentzako laguntzak finkatzea (UPV/EHUn inskribatutako doktorego tesietarako), lan hori aurkez dezaten jardunaldietan, bilzarretan, mintegietan, hitzaldietan, komunikazioetan edo posterretan.
- 2.1.2. Micaela Portilla Saria sendotzea (ikasketa feministei edo generoari buruzko UPV/EHUko tesi onenari ematen zaion saria).
- 2.1.3. Kanpoko erakundeekin batera berriro ere ikerketa beka baterako deialdia prestatzea, urtebeterako laguntza emateko ikasketa feministen eta generoaren arloko gaiak lantzeko, bai eta genero eta orientazio arrazoiengatikoa aniztasuna ardatz duten gaiak lantzeko ere.

2.2. Ikerketan genero oreka eta genero ikuspegia sustatzea.

EKINTZAK:

- 2.2.1. UPV/EHUko Irakasle-ikertzaileei ikerketako metodologiei buruzko ikastaroak ematea genero ikuspegidun proiektuak diseinatzen laguntzeko.
- 2.2.2. Bitartekoak zehaztea ikerketako proiektuetarako deialdietan genero ikuspegia irizpide zehatz, argi eta gardenekin ebaluatzeko.
- 2.2.3. Praktika onen gida egitea ikertzaileei eta ikerketako teknikariei irizpideak emateko proiektuak genero ikuspegiarekin garatu eta idazteko.
- 2.2.4. Ikusgarri egitea emakumeek zientziaren arloko ekoizpenean eta ikerketan duten parte hartze aktiboa, bai eta zientziaren zabalkundearen eta transferentzian daukatena ere.
- 2.2.5. Topaketak eta jardunaldiak antolatzea genero ikuspegidun ikerketaren arloan sentsibilizatze eta esperientziak trukatzeko.
- 2.2.6. UPV/EHUko Liburutegikoekin batera taillerak eskaintzea jakitera emateko zientziaren ekoizpenean badirela genero berdintasunaren irizpideari jarraituz sortutako gordailuak, meta-gordailuak, datu baseak eta memoriak, eta, horien berri emateaz gain, horiek nola erabili eta nola hedatu irakasteko.

III. ARDATZA. GIZARTEAREKIKO HARREMANA

3.1. Emakumeen eta gizonen berdintasunarekin konprometituta dauden beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea, gizartean, eta batez ere nerabeen eta neskatoen artean, aintzat hartzen diren emakume erreferenteak sortzeko.

EKINTZAK:

- 3.1.1. Emakumeen parte hartzea bultzatzea ekitaldi akademikoetan –hala nola graduazio ekital-

dietan, ikasturte hasierako ekitaldian, doktore berrien inbestiduran, eta proiektio publikoa ematea.

3.1.2. Emakume akademikoen presentzia areagotzea ADITUAK gordailuan.

3.1.3. UPV/EHUko irakasle eta ikertzaile emakumeek lortzen dituzten sari eta aipamenak ikusgarri egitea.

3.2. Zientzia eta teknologiarako bokazio goiztiarrak bultzatzea, bereziki emakumeen artean.

EKINTZAK:

3.2.1. Hezkuntza zientifikoa eta zientziaren dibulgazioa bultzatzea gazte-gaztetatik.

3.2.2. Beste eragile eta erakunde batzuekin lankidetzan bokazio goiztiarren inguruko sentsibilizazio eta sustapen programa bat diseinatzea eta ezartzea hezkuntza ez-unibertsitarioko ikasleentz artean eta, bereziki, lehen eta bigarren hezkuntzako nesken artean.

IV. ARDATZA. PERTSONAK

4.1. Genero indarkeriei, jarrera sexistei eta genero arrazoiek eragindako diskriminazio jarrerari aurre egitea unibertsitatean.

EKINTZAK:

4.1.1. Genero Indarkerien aurkako UPV/EHUren Protokoloa hedatzea unibertsitatearen eremu fisiko eta birtual osoan.

4.1.2. Genero Indarkerien aurkako UPV/EHUren Protokoloa ezartzea eta sortzea genero indarkeria kasuei erantzuteko batzordea; batzordekideei prestakuntza berezia emango zaie indarkeria jasan duten edo jasaten ari diren pertsonen entzun eta laguntza emateko.

4.1.3. Urtero, Gardentasun Atarian argitaratzea Berdintasunerako Zuzendaritzan genero indarkeriako zenbat salaketa hartu diren eta zein motatako indarkeria izan den.

4.1.4. Genero indarkeriak prebenitzeko programa bereziak zehaztea, eta emakumezko ikasle gazteen artean ezartzea.

4.1.5. Informaziorako, sentsibilizaziorako eta kontzientzia izateko kanpainak aktibatzea, unibertsitatean genero indarkeriak ezabatzeko.

4.1.6. Generoaren ikuspegitik seguruagoa eta inklusiboagoa izango den unibertsitate eremu bat sustatzea campusetako arduradunekin batera.

4.1.7. Banner berezi bat sortzea UPV/EHUko ikastegi guztietako web guneetan, ikasleek, irakasleek, Administrazio eta Zerbitzuetako Langileek (AZP) eta irakasle eta ikertzaile Pertsonalekoak (IIP) aukera izan dezaten unibertsitatean gertatutako jarrera sexisten edo genero arrazoiengatik jarrera diskriminatzaileen berri emateko.

4.2. Genero edo orientazioagatiko aniztasuna errespetatuko duen unibertsitate eremua bultzatzea.

EKINTZAK:

4.2.1. Ikusgarri egitea identitate, izateko era eta orientazio aniztasuna bermatzeko UPV/EHU sortutako guneak, unibertsitateak *Gune Anitza* ziguilarekin bat egin ondoren.

4.2.2. UPV/EHUko barne dokumentazioan sexu-generorako hirugarren markagailua, ez-bitarra, ezartzen jarraitzea.

4.2.3. UPV/EHUko ikastegi eta gune guztietan komun mistoak identifikatzea eta errotuluak jartzea.

4.2.4. Unibertsitateko kide transei laguntza ematea Eusko Jaurlaritzaren aldi baterako agiri ofizialak izapidetzeko, banaka edo taldean.

4.2.5. Sareak sortzeko ekimenak bultzatzea, genero edo orientazio arrazoiengatik aniztasunaren arloan sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko.

4.3. Gizarte eta lan harremanetan emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatuko duten neurriak aztertu, adostu eta ezartzea.

EKINTZAK:

- 4.3.1. kontratazio batzordeen eta epaimahaien osara parekidea bultzatzea, eta, behar izanez gero, neurriak ezartzea erabakiak hartzeko gune horietan emakumeen parte hartzea sustatzeko.
- 4.3.2. AZP funtzionario zein behin-behinekoak hautatzeko prozesuetan berdintasun klausulak mantentzea eta AZP laboral lan poltsetan berdintasun klausulak sartzea.
- 4.3.3. UPV/EHUrako Kontziliazio Gida egitea, egoera pertsonala, familia egoera eta egoera sozio-laboral desberdinetara egokitua, eta bilduko dituen bizitza pertsonala, familiarena eta lanekoa erantzunkidetasunean kontziliatzeko indarreko arauak.
- 4.3.4. Plana indarrean dagoen bitartean, elkarriketa prozesu bat irekitzea Berdintasun Batzorde Intersektorialean, batetik, indarrean dauden neurriak egokitzeko, eguneratzeko eta hobetzeko, eta, bestetik, proposamenak adosteko lana eta familia erantzunkidetasunean kontziliatzeari buruzko gaietan, ondoren, proposamen horiek kasuan kasuko organoetan onartuak izan daitezen (negoziazio mahaietan eta Gobernu Kontseiluan).
- 4.3.5. Plan hau indarrean dagoen bitartean, apurka-apurka aitatasun baimena ezartzea; hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak hemen zehaztutako hobetzen duen neurriarik onartuz gero, UPV/EHUK bat egingo du hobekuntza horrekin.
- 4.3.6. Plana indarrean dagoen bitartean, apurka-apurka telelaneko plaza kopurua gehitzea, betiere, adin txikikoak zaintzeko kontziliazioa izanik helburua. 2020an 35 plaza eskainiko dira; 2021ean, 38; eta 2022an, 40.

V. ARDATZA.

GOBERNANTZA ETA BALIABIDEAK

EKINTZAK:

- 5.1. UPV/EHUko kide anitzeko organoetan azken osara parekidea izatea bermatzea, ahal den heinean.
- 5.2. Orientazio gida bat egitea UPV/EHUK antolatzen dituen ekitaldietarako, kontuan hartuko dituen genero berdintasuna eta iraunkortasuna.
- 5.3. Unibertsitateko lidergo postuetan eta goreneko agintaritzetan emakume gehiago izatea sustatzea (emakumezko katedradunak eta irakasle osoak, emakumezko ikertzaile nagusiak proiektuetan eta ikertaldeetan, emakumezko goi mailako kargudun akademikoak).
- 5.4. Irakaskuntzaren eta zientziaren munduan emakumeen parte hartzea eta sustapena areagotzea, ahalduz gero eta lidergoaren alde egiten duten sentsibilizazio eta prestakuntza ekintzak bultzatuta.
- 5.5. UPV/EHUn gune mistoak irekitzea, emakumeenak, gizonenak eta ez-bitarrenak, generoaren ikuspegitik berdintasunezko lidergoan eta inklusiboan oinarritutako ereduetan sakontzen joateko.
- 5.6. Urtero memoria deskriptiboa egitea, UPV/EHUn emakumeen eta gizonen egoera erakusteko.
- 5.7. Nazioarteko zenbait egun ospatzea: Zientziako Emakume eta Nesken Nazioarteko Eguna (otsailaren 11), Emakumearen Nazioarteko Eguna (martxoaren 8a), Emakumeenganako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna (azaroaren 25a).

INKLUSIO CAMPUSA



HUagenda 2030-aren bigarren sektore plana¹, **Inklusio Plana** 10. GIHren garapenean (desberdintasunak murriztea herrialdeetan eta herrialdeen artean) oinarritzen da. Unibertsitateak, bere

publikotasunetik, bere gain hartzen du desafio hori, eta jada ibilbide luzea du zeregin horretan.

UPV/EHU konprometituta dago inklusioarekin, aniztasunarekin errespetuarekin eta berdintasunarekin. Bere Estatutuetan dio, **beharrezko neurriak hartuko dituela inor diskriminatua izan ez dadin arrazoi hauengatik: jatorria, etnia, sexua, erlijioa, iritzia, hizkuntza edo bestelako egoera pertsonal edo sozialen bat**. Goi mailako hezkuntzako erakunde publikoa denez gero, aintzat eta printzipio gisa hartu beharko ditu aukera berdintasuna, aniztasun eta diferentziarekiko errespetua, genero ikuspegia txertatzea, ekintza positiboa, sexuari lotutako rola eta estereotipoak baztertzeko, eta gizonen eta emakumeen ordezkariak parekatua.

Era berean, Unibertsitateak arreta berezia eskaintzen die behar bereziak dituzten pertsonen, bere Estatutetako V kapituluak eskainiz. 67 artikuluan esaten da, **ekintzak bultzatuko ditu premia bereziak dauzkaten unibertsitateko kideek eta gainerako kideek aukera berdintasun berberak dauzkatala ziurtatzeko. Beraz, beharrezko baliabideak, informazioa, laguntza eta bitartekoak jarriko ditu premia bereziak dauzkaten pertsonen eskura.**

Euskal unibertsitate publikoan benetako inklusioa lortzeko, zenbait egitura eta plan sortu dira. Horrela, 2001ean, Gobernu Kontseiluak onartu zuen **Minusbaliotasunak dituen unibertsitateko komunitatea EHUn Integratzeko I. Plana**, Ikasleentzako Argibide Zerbitzuak egina. 2003an, Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua sortu zen hiru campusetan, Ikasleen arloko Errektoreordetzaren menpe. 2012an, konpromisoa berretsiz, UPV/EHUren II. Inklusio Plana (2012-2017) onartu zen.

Hala ere, zenbait eremutan hezkuntza inklusiboa oraindik ere ezgaitasunak dituzten ikasleekin lotzen den arren, azken hamarkadan berriaz indartu zen inklusioari buruzko kontzeptu zabalago bat. Horrela, bada, gizarte bazterkeria ezabatzearekin lotzen da –arrazo aniztasunaren, gizarte mailaren, etniaren, erlijioaren edo gaitasunaren ondorioz sortutako zenbait jarrera eta erantzunen ondorioz sortutako gizarte bazterkeria ezabatzearekin, kontuan hartuta hezkuntza oinarritzko giza eskubidea dela eta gizarte justizia hobetzeko oinarri (IBE-UNESCO, 2016²). Beraz, iradokitzen da hezkuntza inklusiboa oinarri duten politikak gauzatu behar direla, beti ere ulertuta hezkuntza inklusiboa prozesu bat dela, oztopoak identifikatu eta ezabatzen dituen, ikasle guztien parte hartzea sustatzen duena eta arreta berezia eskaintzen diena marjintatuak, baztertuak edo etekin gutxi izateko arriskuan dauden ikasleei.

Zalantzarik gabe, eraldaketa horiek guztiek eragin dute beste garai batean beren egoera edo baldintza pertsonalengatik hezkuntza sistematik kanpo geratuko ziren pertsona askok orain aukera izatea prestakuntzan aurrera egiteko, eta horietako askok unibertsitateko ikasketak egiteko. Norabide horre-

1 **Inklusio Campusa** UPV/EHUren III. Inklusio Planaren (2019-2022) bertsio laburtu bat da. Adierazleen definizio operatiboa jasota dago UPV/EHUren Garapen Iraunkorreko adierazleen taulan.

2 http://www.ibe.unesco.org/sites/default/files/resources/ibe-crp-inclusiveeducation-2016_eng.pdf

tan, unibertsitateak bere konpromiso publikoa betetzeko, batzuetan, uneko erantzunak eman ditu, eta, beste batzuetan, programa egituratuagoak garatu.

Hala ere, gaur egun hori ez da nahikoa. 2012-2017 aldirako **II. Inklusio Plan**aren ebaluazioa egiteko 2018an unibertsitateak egin duen gogoeta estrategikoaren ondorioz, baldintza egokiak sortu dira epe ertain-luzera azterketa lasaiagoa eta kontrastatua egiteko, eta pentsatzeko unibertsitateko politikak zelan birbideratu kontuan izanda aipatutako guztia. Bide berean **2018-2021 Plan Estrategikoak**, Gizartearekiko Harremanen ardatzean (III. ardatza) helburutzat zehaztuta dago **unibertsitatea garpapen iraunkorra, inklusioa eta gizarte konpromisoa sustatzen duen erakunde bihurtzea, eta ekintzen artean proposatzen du premia bereziak dituzten kolektiboak (errefuxiatuak, gizarte, ekonomia eta kultura egoera ahulean dauden kolektiboak, beste batzuen artean) laguntzeko programak eta deialdiak indartzea.**

Inklusio Campus-ak bere egiten du agindu hori, eta inklusioaren kontzeptu konprometituago eta orokorrago bat oinarri hartuta jardutea planteatzen du, **EHUagenda 2030**-ean zehaztutako lehentasunak gidari direla. Beraz, eta oinarri hartuta ekitate terminoaren definizioa (pertsonek guztiak berdin tratatzea, desberdintasunak eta gaitasunak aintzat hartuta eta errespetatuz), inklusioak esan nahi du unibertsitate eremu egokia sortzea, ikasle guztiei aukera emango diena unibertsitateko ikasketetara sartzeko, unibertsitateko bizitzan parte hartzeko eta ikasteko, edozein izanik ere beren ezaugarri, baldintza edo gorabehera pertsonalak, eta arreta berezia eskainita marjinazio edo/eta zaugarritasun egoeran egon daitezkeenei. Edozelan ere, ikasle guztiei eta unibertsitateko kide guztiei zuzendutako lana da. Izan ere, inklusioa ez da posible izango guztiok, pertsona den-denak, ez bagara inklusiorako agente aktibo bihurtzen.

Oztopo guztiak identifikatzea eta ezabatzea lan nekeza da, baina lan honen asmoa da 10. GIHan zehaztutako ildo berean lan egitea: "desberdintasunak murriztea", bai eta 4. GIH helburuari eustea ere, hau da: "kalitatezko hezkuntza". Bestalde, arreta berezia eskainiko die ondorengo taldeei, talde hauek dutelako arriskurik handiena bazterkeria edo marjinazio jasateko edo zaugarri izateko.

- Baliabide ekonomikoen gabezia daukaten ikasleak.
- Familia babesgabetasun egoeran daudenak.
- Ezgaitasunak edo antzeko beste egoera batek eragindakoak.

- Asiloa eskatu dutenak edo errefuxiatuak.
- Laguntza psikologikoa behar dutenak.
- Sexu eta genero identitateari lotutako egoeraren batean daudenak.
- Askatasunaz gabetutako ikasleak.

Plan ha aurrera eramateko gakoa izango da eragindako zerbitzuetan parte hartzen duten guztiek, den-denek, elkarrekin lan egitea, elkarlanean aritzea, **III. Inklusio Plan** hau osatzeko erabilitako irizpide berei jarraituz. Plana zehazteko erabilitako sekuentzia logikoa bat dator, oro har, arlo bakoitzeko taldeek duten lan egiteko erarekin, hau da: talde bakoitzak bere ezaugarriak dituen arren, UPV/EHU parte hartzerako jarraitzen diren etapak berdinak dira, horrela hobeto ulertzen baitira prozesuak eta beren gestioa.

ARDATZAK, HELBURUAK ETA EKINTZAK

I. ARDATZA INFORMAZIOA INKLUSIOAREN IKUSPEGITIK EMATEA, IKASKETAK AUKERA ERREAL GISA IKUS DADIN ETA EGOERARI EGOKITUTAKO ERABAKIAK HAR DAITEZEN.

1.1. Unibertsitatera sartzeko bideak, ikasketen eskaintza eta UPV/EHUn inklusioa babesteko neurriak eta baliabideak ezagutzera ematea.

EKINTZAK:

- 1.1.1. UPV/EHUn babes neurriak eta baliabideei buruzko informazio sistema komunak sortzea (standak azoketan, informazio liburutegia, web-gunea, etab.), unibertsitate aurreko orientazio ekintzetan ikasleentzako aniztasunari erantzuteko.
- 1.1.2. Plan honen xede diren kolektiboak lotutako gizarte eragileak (erakundeak, elkarteak, etab.) identifikatzea eta haiekin harremanetan jartzea.
- 1.1.3. Ahultasun egoeran egon daitezkeen ikasleei laguntzeko zerbitzu espezifikoak aurkeztea UPV/EHUn unibertsitate aurreko hezkuntza eragileekin antolatutako jardunaldi eta topaketetan.
- 1.1.4. UPV/EHUn gradu ikasketen eskaintzari sartzeko bideak eta inklusioari laguntzeko neurriak eta baliabideei buruzko jardunaldiak eta/edo topaketak antolatzea gizarte eragileekin.

1.2. Erabakiak hartzeko erraztasunak ematea, ikasleak beren aukerak konzientziatuta.

EKINTZAK:

- 1.2.1. Esperientzien trukea bultzatzea, ahultasun egoeran dauden unibertsitate ikasle eta/edo egresatuak eta ahultasun egoera berean dauden unibertsitate aurreko ikasleentzako.
- 1.2.2. ItzALA programa diseinatzea eta ezartzea. Programa horren bidez, unibertsitateko ikasleek ahultasun egoeran dauden unibertsitate aurreko ikasleei laguntzen dieten denbora batez, unibertsitateko errealitateari hurbiltzeko.

II. ARDATZA AUKERA BERDINTASUNA BERMATZEA, UNIBERTSITATE IKASKETEN SARRERAN.

2.1. Unibertsitatera sartzeko probak egiteko aukera bermatzea ikasle guztiei.

EKINTZAK:

- 2.1.1. Aniztasuna aintzat hartuko duen unibertsitate sarrera baterako prozedura partekatu bat diseinatzea, non inplikaturako zerbitzu guztiek parte hartuko duten.
- 2.1.2. UPV/EHUn kanpoko erakundeekin koordinazioa indartzea, unibertsitatera sartzeko trukeak ikasleentzako egoera espezifikoaren arabera egiteko.
- 2.1.3. Teknologia berriak sartzeko probak egokitzeko eskaintzen dituzten aukerak aztertzea, ikasleentzako behar espezifikoaren arabera.
- 2.1.4. Unibertsitatera sartzeko ebaluazioan parte hartzen duten irakasleei probekiko egokitzapena aplikatzeari buruzko informazioa ematea.

2.2. Unibertsitatera sartzeko administrazio tramiteak erraztea.

EKINTZAK:

2.2.1. Gidari eta aholkulari lana egitea, unibertsitatean sartzeko eta matrikulatzeko eta laguntza ekonomikoak eta materialak eskatzeko tramite administratiboak arrakastaz egin daitezen.

2.3. Aniztasuna aintzat hartuko duten harrera prozesuak egitea, ikasleei unibertsitatean kokatzen lagunduko dietenak.

EKINTZAK:

2.3.1. Aniztasunari erantzuteko jardunbide egokien gida egitea, UPV/EHUko zerbitzuetan diharduten langileentzat, lau etapetarako (barne direktorioa izango duena).

2.3.2. Ikasleei harrera egitea eta UPV/EHUren babes zerbitzuei buruzko informazioa ematea.

III. ARDATZA UNIBERTSITATE BIZITZA INKLUSIOAREN IKUSPEGITIK GARATZEN ERRAZTEA.

3.1. Ahultasun egoeran dauden pertsonen unibertsitate ikasketak egiteko erraztasunak ematea.

EKINTZAK:

3.1.1. Ezgaitasunak dituzten ikasleen arretarako programa indartzea, honako hauek bultzatuta: tutoretza espezifikoa, unibertsitate kolektibo guztientzako inklusioari buruzko prestakuntza eta unibertsitate ikastegieko koordinazioa.

3.1.2. ARRAKASTA programa hiru lurraldeetara zabaltzea, programan dauden ikasleen arreta protokolo batean zehaztea, baita babes neurrien kudeaketa ere.

3.1.3. Arreta Psikologikoko Zerbitzuaren eta inklusioa lantzen duten gainerako programen arteko lankidetzaren eraginkorri egituratzea.

3.1.4. Errefuxiatuen eta asilo eskatzaileen arretarako programa indartzea, hizkuntzen prestakuntza eskaintza eta harrera erakundeekiko koordinazioa hobetuta, Gipuzkoa eta Arabako campusetan bereziki.

3.1.5. Ezustean sortutako arazo ekonomikoak dituzten ikasleentzako laguntza programa mantentzea, ikasten jarrai dezaten.

3.1.6. Presondegietan diren pertsonen arretarako programa mantentzea, eta haren tutoretza sistema hobetzea.

3.1.7. Genero identitate arazoak dituzten ikasleen arretarako aukerak aztertzea.

3.2. Ikasleen parte hartze aktiboa bultzatzea unibertsitate bizitzan, eta UPV/EHUko kide izatearen sentimendua indartzea.

EKINTZAK:

3.2.1. Ahultasun egoeran dauden ikasleentzako laguntza eta haien parte hartzea bultzatuko duten boluntarioen sareen eta autokudeatutako boluntarioen proiektuen sorrera bultzatzea.

3.2.2. Gizarte boluntariotzako jardueretan parte hartzea bultzatzen duten zerbitzuen eta unitateen arteko lankidetzaren estutzea.

3.2.3. Ikasleen interesari lotuta dauden eta aukera berdintasunez parte hartzeko aukera ematen duten jarduerak bultzatzea.

3.3. Kultura inklusiboa UPV/EHUko unibertsitateko kideen artean zabaltzea, eta gizartearen sentsibilizazioan laguntzea.

EKINTZAK:

- 3.3.1. Sentsibilizatzeko eta ikusgarritasuna emateko ekintzak bultzatzea, zeharkako ikuspegi integratzaile batez eta Garapen Jasangarrirako 2030eko agendaren helburuekin bat etorrita.
- 3.3.2. Irakasle-ikertzaileei, AZPko langileei eta ikasleei gizarteratzeari buruzko prestakuntza ematea, aukera berdintasuna bermatzeko.

3.4. Ikasleen enplegarritasunaren alde egitea.

EKINTZAK:

- 3.4.1. Ahultasun egoeran dauden ikasleen parte hartzea areagotzea ekintzailatza programetan, hala nola Entreprenari ZITEK-ABIATU, EHU-Inizia, Etorkizulan IKD-GAZtE.
- 3.4.2. Curriculumetik kanpoko praktika espezifikoak egin ahal izateko, ezgaitasunak dituzten ikasleentzat eskainitako plaza kopurua areagotzea.
- 3.4.3. Ahultasun egoeran dauden kolektiboekin lanean diharduten erakunde eta enpresen presentzia ziurtatzea enplegu foroetan.

IV. ARDATZA BIZITZA AKTIBORAKO IGAROBIDEA ERRAZTEA.

4.1. Unibertsitate ikasketak amaitu ondorengo erabakiak hartzeko erraztasunak ematea.

EKINTZAK:

- 4.1.1. Enplegu guneetako eta ekintzailatza zerbitzuetako langileei eta unibertsitate ikastegietan enplegu arloa lantzen duten pertsonen inklusioari buruzko prestakuntza espezifiko ematea.
- 4.1.2. Ahultasun egoeran dauden ikasleenganako hurbilketa proaktiboa bultzatzea, enplegarritasuna sustatzen duten zerbitzuetatik (enplegu guneak, ekintzailatza zerbitzuak, etab.).
- 4.1.3. Enplegu guneek lanpostu inklusiboen eskaintza eraginkortasunez kudeatzeko bideak aztertzea.
- 4.1.4. Gidaritza programak sustatzea, EHUalumni sarearen bidez.
- 4.1.5. EHUalumni sareko kideen eta ikasle egresatu berrien arteko topaketak antolatzea, era askotako bizi esperientziak partekatzeko.

4.2. Hedabideetan presentzia eta sareko lana indartzea, ikasle egresatuen gizarteratzea errazteko.

EKINTZAK:

- 4.2.1. Komunikazio estrategia bat diseinatzea, gizartearen kolektibo hauekiko egresatuen balioa ezagutzera emateko.
- 4.2.2. EHUalumni sarean kolektibo horien inklusioa bultzatzea.

PLANETA CAMPUSA

UPV/EHUK, unibertsitate publikoa den aldetik, bere Estatutuek hala aginduta, bere eguneroko zereginak **ekonomia, gizarte eta ingurumenaren iraunkortasun irizpideei jarraiki** eramaten ditu aurrera. Helburu horrek irakaskuntzan du isla, baita kudeaketan, ikerketan eta unibertsitate hedakuntzan ere. **EHUagenda 2030**-ren atalek zehaztu dituzte **IKD i³** bidez irakaskuntzan bete nahi diren helburuak, baita emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari eta inklusioari dagozkienak ere. **Planeta Campus**¹ honetan, UPV/EHUK ingurune fisikoei erreparatzen die, aintzat harturik kudeaketa iraunkorra dela pertsonen eta planetaren osasuna kontuan hartzen duena.

Aurretik aipatutako esparruetan bezala, ingurumenaren eta osasunaren kudeaketan unibertsitatea ez da zerotik hasten. Azken urteetan, lan handia egin da kudeaketa arduratsuan, UPV/EHUKen fakultate eta eskoletako Ingurumena hobetzeko taldeen bidez nagusiki. Talde horiek elkarlanean aritu dira nagusiki Campuseko Errektoreordeekin, Iraungarritasunerako Zuzendaritzarekin eta beste zerbitzu batzuekin (Arkitektura eta Obren Zuzendaritza, Kontratazio eta Erosketen Zerbitzua), eta bururaino eraman dituzte arlo honetako hainbat politika eta planen mandatuak. Gainera, landu egin dira lan segurtasunarekin eta osasunarekin loturiko gaiak, Prebentzio Zerbitzuaren bidez, bi ikuspegitatik (teknikoa eta sanitarioa), baita ongizate emozionalarekin loturikoak ere, Arreta Psikologikoko Zerbitzuaren bitartez.

Hala eta guztiz ere, orain arte ez zegoen plan espezifikoa eta integralik ingurune fisikoen eta osasunaren kudeaketaren alorrean. **EHUagenda 2030**-ren egiteak agerian utzi du alor honetan ere ibilbide orri

bat edukitzearen beharra, halako moldez, non elkar konektatu egingo diren lehen egitasmo hauek eta beste berri batzuk proiektatu ingurumen ikuspegitik iraunkorra den campusaren ideia inguruan. Ahalgin handi bat egin behar da administrazio egiturei, zerbitzu teknikoei eta unibertsitate ikastegiei eragiten dieten zeregin hauek guztiak koordinatzeko eta haien zeharkakotasuna lantzeko, baita egitura horietan lan egiten duten pertsonen eragiten dietenak ere (AZP, IRI, ikasleak eta kanpo eragileak). **Planeta Campus** da etapa berri honetan erabili nahi den formula. Bertan campusetako bizitzan ingurumenerako efektu negatiboak ahalik eta gehien murriztu eta bizimodu osasuntsuetara iragatean jarriko da arreta. Gainera "smart campus" hurbilpen honek kudeaketa arloko ekintzak irakaskuntzakoekin eta ikerkuntzakoekin bat egitea ahalbidetuko du.

Unibertsitatea, **Planeta Campus**-ren ikuspegitik, baliabide kopuru mugatu bat duen sistema bat da. Sistema horren kanpoko mugak campusek bere dituzten kanpoko mugak dira, eta sistema handiago batean integratuta dago: ingurune natural hurbila eta hortik haragokoa hots, planeta. Baliabideak kudeatzeko moduak, aipatutako mailetako edozeinetan, hurrengoei eragiten die, hurrenez hurren. Egungo ingurumen krisiak, zientzialariek luze-zabal ikertu dutena, atzeraezin bihur daitezkeen joera batzuk ditu, eta ezinbestekoa da lehenbailehen maila guztietan neurriak hartzea. Mundu mailan ekiteko gidalerroak GIHez ezarritakoak dira, eta aintzat hartu behar ditu unibertsitateak. Unibertsitatean ingurumen eta osasun arloan kudeaketa on bat egitea izan daiteke krisi horri aurre egiteko modu bat, baina baita pertsonak hezteko modu bat ere, ohiturak aldatu eta bizitzeko modu iraunkoragoak eta osasungarriagoak har ditzaten.

¹ **Planeta Campus** UPV/EHUKen Inguruaren eta osasunaren kudeaketarako plan pilotuaren bertsio laburtu bat da. Adierazleen definizio operatiboa jasota dago UPV/EHUKen Garapen iraunkorrerako adierazleen taulan.

Planeta Campusa-ren definizio honen bidez, aurrera egin nahi da 2018-2021 Plan Estrategikoaren helburu honetan: **Unibertsitatea garapen iraunkorra, inklusioa eta gizarte konpromisoa sustatzen dituen erakunde bihurtzea**. Horretarako, nabarmentzen da, besteak beste, **unibertsitate kolektiboan (AZPko langileak, irakasle-ikertzaileak eta ikasleak) arteko lankidetzaren bultzatzea, UPV/EHUren iraunkortasunaren inguruan (ur kontsumoa, energia, hondakin kudeaketa, garraioa, etab.)**.

Aurrerabidearekin orekan egongo den planetaren babesaren garrantzia jasota dago Nazio Batuen 2030 Agendaren Garapen Iraunkorrerako Helburuetako batzuetan. Helburu horiek ez diete eragiten maila berean erakunde guztiei, eta horregatik hartzen ditu UPV/EHUK horietako batzuk garrantzitsutzat **Planeta Campusa** definitzeko orduan. Honako hauek dira:

- **3. GIH.** Osasuna eta ongizatea: bitzita osasungarria bermatzea eta pertsona guztien ongizatea sustatzea, adin guztietan.



- **7. GIH.** Energia eskuragarria eta ez-kutsatzailea: denentzako eskuragarria, fidagarria, iraunkorra eta modernoa izango den energia bermatzea.



- **9. GIH.** Industria, berrikuntza eta azpiegiturak: azpiegitura erresilienteak eraikitzea, industrializazio inklusibo eta iraunkorra sustatzea eta berrikuntza bultzatzea.



- **11. GIH.** Hiri eta komunitate iraunkorrak: hiriak eta giza asentamenduak inklusiboak, seguruak, erresilienteak eta iraunkorrak izan daitezten lortzea.



- **12. GIH.** Ekoizpen eta kontsumo arduratsua: ekoizpen eta kontsumo iraunkorraren modalitateak bermatzea.



- **13. GIH.** Klimaren aldeko ekintza: premiazko neurriak hartzea klima aldaketaren eta haren ondorioen aurka.



Unibertsitateak onura handia atera dezake sei GIH horiekin konprometituta, haien xedea baita giza jardueren ingurumenaren duten eragin negatiboa prebenitu, murriztu eta ezabatzea, eta pertsonen ongizate fisikoa eta psikologikoa hobetzea. Plan honetako ekintzek dituzten onuren artean, gastu murrizketa, istripu arriskua txikiagotzea eta beste hainbat daude, eta horrek ez lituzke motelduko irakaskuntza, ikerketa eta transferentzia jarduerak.

Planeta Campusak erreferentzia izan nahi du ingurune fisiko iraunkor eta osasuntsuen kudeaketa politikan, alor honetako gai guztiak lantzea ahalbidetuko duten tresnak sortuz. Gainera, asmoa da plan hau eredu izatea unibertsitateko kide guztiek bitzita eta kontsumo ohitura berriak har ditzaten, campus bakoitzaren inguruko eguneroko praktika-aren bitartez.

Planeta Campusa artikulatzen da ingurumen kudeaketaren ardatz pragmatikoen bidez: energia, ura, hondakinak, hirigintza eta azpiegiturak, osasuna eta ongizatea, garraioa eta mugikortasuna, erosketak eta kontsumo arduratsua. Gainera, helburu bat definitzen du ere bere gobernanzarako eta beste bat, bere partekatze-ikusgarritasunerako.

Plan honek izaera esperimentalak du eta 2025ean plan sendoa eta finkoago batekin instituzionalizatzeko esperientzia pilotua garatzeko helburua du. Norabide hori hartzeko lehenik eta behin pertsonen arteko lankidetzaren beharrezkoa izango da, zehazkiago ingurumen eta osasun arloetan lan egiten duten zerbitzu eta unitateetako langileak. Halaber, eginkizun honetan ikastegietan diharduten Ingurumena hobetzeko taldeak eta zuzendaritza taldeetan arlo honetan ardurak dituzten pertsonak gehitu beharko dira.

1. HELBURUA

1. Materialen eta baliabideen kontsumoa optimizatzea eta material berrerabilgarrien eta birziklagarrien erabilera sustatzea.

EKINTZAK:

- 1.1. Pixkanaka ezartzea lehengaien kontsumoa (elektrizitatea, gasa, gasolioa, ura, papera, ontziak...) kontrolatu eta erregistratzeko sistemak.
- 1.2. Zerbitzuek eta ikastegiek egunero erabiltzen dituzten materialen eta baliabideen kontsumoaren jarraipena egitea, eta kontsumo horren berri ematea unibertsitateko kideei, baita ingurumenean eta osasun arloan duen eraginaren berri ere.
- 1.3. Materialen eta baliabideen kontsumoaren "puntu beltzak" identifikatzea eta horiek saihesteko neurriak hartzea.
- 1.4. Pixkanaka material berrerabilgarriak eta birziklagarriak erabiltzen hasia erabili eta botatzeko lehengaien ordez.
- 1.5. Unibertsitateko kideak sentsibilizatzea eta trebatzea materialak eta baliabideak eraginkorrago erabil ditzaten, era koherentean ingurumenaren babesarekin eta pertsonen bizi kalitatearekin.

2. HELBURUA

2. Energia aurrezpena bultzatzea eta energia garbien eta berriztagarrien lehentasunezko erabilera sustatzea.

EKINTZAK:

- 2.1. Energia aurrezteko neurriak bultzatzea eta teknika eta teknologia eraginkorragoen erabilera handitzea, kontsumoa kontrolatzeko sistemak izango dituzten kontsumo apaleko ekipamenduak erabiltzen hasiz kontsumo handiko ekipamenduen ordez.

- 2.2. Erregai garbiak, baliabide berriztagarriak edo teknologia berdeak erabiliiko dituzten irtenbide berritzaileak sustatzea eta ezartzea.
- 2.3. Gastu energetikoaren "puntu beltzak" eta jardunbide desegokiak identifikatzea, eta ohitura aldaketa sustatzea unibertsitateko kideen artean.
- 2.4. Energia aurrezpenaren eta eraginkortasunaren eta energia berriztagarriak erabiltzearen onurak ezagutaraztea, pertsonentzako eta ingurune naturalarentzako onurak.

3. HELBURUA

3. Sortutako hondakinak era arduratsuan kudeatzea.

EKINTZAK:

- 3.1. Informazioa eta baliabideak ematea etxekoekin pareka daitezkeen campusetako hondakinak murrizteko eta, posible ez denean, gaika bereizteko.
- 3.2. Unibertsitatean erabiltzen diren material arruntren trukea sustatzea (liburuak, tresneria, ordenagailuak...), berrerabiltzeko eta hondakin ez bihurtzeko.
- 3.3. Neurriak hartzea campusetan elikagairik alferrik ez galtzeko.
- 3.4. Hondakinak autokudeatzeko egitasmoak bultzatzea: hala nola materia organikoa konpostatzea edo haren balorizazioa.
- 3.5. Jardunbide egokien erabilera sustatzea irakaskuntzatik eta ikerketatik sortzen diren hondakin arriskutsuak murrizteko eta hondakin horiek egoki kudeatzeko.
- 3.6. Emisio atmosferikoen eta isurien kutsadura minimora murrizteko behar diren neurriak hartzea eta kontrolatzea.

4. HELBURUA

4. Ingurumen irizpideak sartzea campusen hirigintza plangintzan eta eraikinen eta azpiegituren eraikuntza/eraberritze proiektuetan (Smart campus).

EKINTZAK:

- 4.1. Ingurumen irizpideak eta irizpide bioklimatikoak sartzea obra kontratuen agirietan.
- 4.2. Kontuan hartzea ingurumen iraunkortasun eta pertsonen ongizate irizpideak campusetako eraikinen modernizazioan.
- 4.3. Espazioen optimizazio eta berrerabilpen programak egitea unibertsitate ikastegietan eta campusetan.
- 4.4. Berdeguneen eraikuntza bultzatzea ikastegi kanpoaldean eta gune horien erabilera indartzea jarduera akademiko, zientifiko, kultural edo ludikoetarako.

5. HELBURUA

5. Unibertsitateko kideen ongizatea eta osasuna sustatzea.

EKINTZAK:

- 5.1. Ohitura osasungarriak sustatzea unibertsitateko kideen artean (elikadura osasungarria eta orekatua, ariketa fisiko erregularra, atsedena, estresaren maneia, etab.).
- 5.2. Unibertsitateko kideen osasuna sustatzea helburu duten zerbitzuen eta jardueren eskaintza indartzea.
- 5.3. Otorduak egiteko eta harremanak egiteko leku 'lagunkoiak' sortzea.
- 5.4. Osasuna sustatzeko esperientzien trukea bultzatzea unibertsitateko kideen artean eta osasun publikoko erakundeetako eta beste erakunde batzuetako kideen artean.

6. HELBURUA

6. Unibertsitate ikastegietara garraibide seguru eta iraunkorren bidez iristeko moduak bultzatzea.

EKINTZAK:

- 6.1. Garraio ez-motordunen erabilera indartzea garraibide nagusi gisa.
- 6.2. Campusak eta hiriak konektatuko dituzten oinezkoentzako eta bizikletentzako bideak eraikitzea eta mantentzea, eta bitarteko lagungarriak hornitzea (bizikleten aparkalekuak, duxtak, bizikletak maileguan hartzeko zerbitzuak...).
- 6.3. Garraio publikoaren erabilera bultzatzea eta indartzea.
- 6.4. Agintariekin lan egitea unibertsitate heltzeko garraibide kolektiboetan erabilera bultzatzeko (tranbia, metroa, trena...).
- 6.5. Formulak proposatzea garraio enpresei eta garraio kolektiboaren kudeaketan eskumenak dituzten erakunde publikoei unibertsitate heltzeko garraio publikoaren maiztasuna handitzeko, ibilbideen iraupena minimizatzeko eta unibertsitateko kideei prezio merkeagoak eskaintzeko.
- 6.6. Ibilgailua partekatzeko programak sortzea eta mantentzea, eta ibilgailu garbien (eko edo zero emisioak) edo Okupazio Handiko Ibilgailuen aparkalekuak lehenestea.

7. HELBURUA

7. Erosketa eta kontsumo arduratsua sustatzea.

EKINTZAK:

- 7.1. Lehenetsuna ematea obra, zerbitzu eta horniduretan ingurumen irizpideak sartuko dituzten hornitzaile eta kontratei, eta ingurumen ikuspegitik kudeaketa arduratsu bat akreditatuko dutenei.

- 7.2. Tokiko produktuen eta bidezko merkatari-tzako produktuen lehentasunezko eskaintza eta kontsumoa bultzatzea campusetan.
- 7.3. Erosketa berdean eta erosketa publiko arduratsuan trebatzea Kontratazio Zerbitzuko langileak eta erosketa eta kontratazio bolumen handi bat egiten duten pertsonak.
- 7.4. Beste erakunde batzuekiko sinergiak maximizatzea, informazioa eta esperientziak partekatuta erosketa eta kontsumo arduratsuen alorrean.
- 7.5. Unibertsitateko kideak trebatzea eko-etiketatu, beste ziurtapen sistema batzuetan eta kontsumo arduratsuan.

8. HELBURUA

8. Gaitasuna ematea unibertsitateko kideei klima aldaketaren ondorioak arintzeko eta aldaketa horietara egokitzeko.

EKINTZAK:

- 8.1. Unibertsitateko kideak sentsibilizatzea karbono maila apalagoko ekonomia baterantz jartzeko beharraz, klima aldaketari aurre egiteko.
- 8.2. Gaitasuna ematea unibertsitateko kideei martxan jartzeko klima aldaketaren ondorioak arintzeko eta ondorio horietara egokitzeko ekintzak.
- 8.3. Unibertsitate jardueraren karbono arrastoa zehaztea eta jakinaraztea, eta berotegi efektuko gasen emisioa murrizteko ekintzak martxan jartzea.
- 8.4. Klima aldaketari eta berokuntza globalari buruzko jakintza berriak beste erakunde batzuekin partekatzeko sistemak hobetzea eta desafio horri aurre egiteko lankidetzak indartzea.

9. HELBURUA

9. Ingurumen iraunkortasunarekin lerrokatutako gobernantza eta kudeaketa bermatzea.

EKINTZAK:

- 9.1. Ingurumen arloko legedia betetzen dela bermatzea.
- 9.2. Ingurumen iraunkortasunaren arloko konpromiso zehatzak sartzeko eskatzea ikastegiengatik zerbitzu gutunetan eta konpromiso dokumentuetan.
- 9.3. Ingurumena hobetzeko taldeen sorkuntza eta mantenimendua sustatzea unibertsitate ikastegiengatik.
- 9.4. Orientazio gida bat egitea martxan jartzeko ingurumena hobetzeko plan bat ikastegi edo zerbitzuetan.
- 9.5. Ingurumen iraunkortasunaren alorrean eginiko urratsen kontu ematea eskatzea zerbitzuen eta ikastegiengatik memorietan.
- 9.6. Lehentasunezko harremanak ezartzea eta lehenetik zeudenak estutzea ingurumen kudeaketan esplizituki diharduten antolakuntzekin, enprekin eta erakunde publiko eta pribatuekin.








10. HELBURUA

10. Prestakuntza eta aholkularitza eskaintzea ingurumen kudeaketa egoki baterako eta ingurumen arloko jardunbide egokiak nabarmentzea.

EKINTZAK:

- 10.1. Ingurumen kudeaketa tresnei buruzko prestakuntza eskaintzea irakasle-ikertzaileei, administrazio eta zerbitzuetako langileei eta ikasleei, eta unibertsitatearen kudeaketa iraunkorrean parte har dezaten lortzea.
- 10.2. Komunikazio kanal bat ezartzea etengabeko laguntza eta aholkularitza eskaintzeko ingurumena hobetzeko taldeei eta Planeta Campusaren barnean ekintzak egiteko interesa duten beste pertsonen.
- 10.3. Baliabideak jartzea unibertsitateko kideek hobekuntza proposamenak egin ditzaten ingurumen kudeaketaren alorrean.
- 10.4. Ingurumen arloko jardunbide egokiei eta emaitza esanguratsuei buruzko webgune bat sortzea.
- 10.5. Planeta Campusari loturiko jardunbide egokiak publikoki aitortuko dituzten foroak/ekitaldiak antolatzea.

HASIERAKO EGOERA: 2017/18 IKASTURTEA



ADIERAZLEEN PANELA

3 OSASUNA
ETA ONGIZATEA



1. Bizi estilo osasuntsuak sustatzeko ekimenetan parte hartzen duten unibertsitateko kideak.
2. Osasun eta ongizate programetan artatutako unibertsitateko kideak.
3. Osasunari lotutako lanbideetan graduatutako pertsonen kopurua.

4 KALITATEZKO
HEZKUNTZA



4. Matrikulatutako ikasleak.
5. Unibertsitateko lehen urtean diren ikasleak.
6. Eskaintza akademikoa (Graduko tituluak, masterrak, doktoregoak eta berezko tituluak).
7. Garapen Iraunkorreko Helburuetan (GIH) laguntzen duten GrALen kopurua.
8. Ikasle gradudunak.
9. GIHetan laguntzen duten tesien kopurua.
10. GIHetan laguntzen duten ikertalde finkatuen kopurua.
11. Tituludunek jasotako gaitasunen balorazioa.
12. Ikasleen gogobetetze maila UPV/EHUrekiko.
13. Iraunkortasunerako berrikuntza proiektuetan parte hartzen duten irakasleen kopurua.

5 GENERO-
BERDINTASUNA



14. Genero indarkeriari buruzko UPV/EHUren protokoloaren aplikazioan izandako jardueren kopurua.
15. Emakumezko ikertzaile liderren ehunekoa, ikertaldeetan.
16. Emakumeen ehunekoa, kargu akademikoetan.
17. Emakume katedradun edo osoen ehunekoa, osoarekiko.
18. Ikasketa feministak eta generokoak graduondokoan egresatutako pertsonen kopurua.

7 ENERGIA
BERRIZTAGARRIAK



19. Energia berriztagarrien ekoizpena.
20. Iturri berriztagarrietako ehunekoa energia kontsumoan.
21. A, B edo C eraginkortasun energetiko kalifikazio ziurtagiria duten RITE instalazioen ehunekoa.
22. A, B edo C eraginkortasun energetiko kalifikazio ziurtagiria duten eraikinen ehunekoa.

8 LAN-DUINA
ETA HAZKUNDE
EKONOMIKOA



23. Sortutako spin-offen kopurua.
24. Kualifikazio handiko enpleguen kopurua, unibertsitateak sortutako enpresetan.
25. Ikasle egresatuen enplegu tasa, hiru urtera.
26. Lehen enplegua lortu arte igarotako denbora.
27. Kontratu mugagabea duten UPV/EHUko langileen ehunekoa.

9 BERRIKUNTZA
ETA AZPIEGITURA



- 28. BEG inbentarioa .
- 29. Ingurumen portaera hobetzeko plana indarrean duten ikastegiaren ehunekoak.
- 30. Ingurumen ziurtagiriren bat duten ekimenen kopurua.
- 31. GIH lortzen laguntzen duten ustiapen patente edo lizentzien kopurua.

10 DESBERDINTASUNAK
MURRIZTEA



- 32. Inklusio programetan hartutako ikasleen kopurua.
- 33. Ekintza solidarioetan parte hartzen duten ikasleen kopurua (boluntarioak).
- 34. Ordainsari handieneko eta gutxieneko langileen arteko soldata desberdintasuna.
- 35. Ezgaitasuna duten UPV/EHUko langileen ehunekoak.

11 HIRI ETA KOMUNITATE
IRAUNKORRAK



- 36. Garraio iraunkorra (oinez, bizikleta, garraio publikoa) egunero erabiltzen duten unibertsitateko kideak.
- 37. Bizikletak aparkatzeko plazen kopurua.
- 38. Unibertsitate campusetan berdeguneek eta lorategiek hartutako azaleraren ehunekoak.

12 EKOIZPENA ETA
KONTSUMO
ARDURATSUA



- 39. Janaria alferrik galtzea.
- 40. Hondakin arriskutsuen sorrera laborategietan eta tailerretan.
- 41. Aparatu Elektrikoen eta Elektronikoen Hondakinen (AEEH) sorrera.
- 42. Gaikako bilketa tasa.
- 43. Hondakinen sorrera.
- 44. Etika, gizarte eta ingurumen klausulak izan dituzten lizitazioen ehunekoak.
- 45. Ingurumenari lotutako lanbideetan graduatutako pertsonen kopurua.

13 KLIMA
BABESTEKO
EKINTZA



- 46. Klima aldaketaren gaiari buruzko hezkuntza jardueren kopurua.
- 47. Klima aldaketari buruzko ikerketen kopurua.

16 BAKEA ETA
JUSTIZIA



- 48. UPV/EHUren gardentasun indizea.
- 49. Kontuak ematea.
- 50. Unibertsitateko kideen parte hartzea, erabakiak hartzean.
- 51. Tokiko, eskualdeko, estatuko edo Europako gobernuetan zerbitzu bereziak ematen ari diren UPV/EHUko langileen kopurua .

17 ITUNAK
HELBURUAK
LORTZEKO



- 52. Matrikulatuen %0,7 garapenerako unibertsitate lankidetzako proiektuetara bideratzea borondatez eskatzen duten ikasleen kopurua.
- 53. Garapenerako lankidetzaren proiektuen kopurua.
- 54. Garapenerako lankidetzaren jardueretan parte hartzen duten ikasleen kopurua.
- 55. Administrazio publikoekin eta gizarte erakundeekin izenpetutako hitzarmen kopurua.
- 56. UPV/EHUren parte hartzea, garapen .

18 HIZKUNTZA
ETA KULTUR
ANIZTASUNA



- 57. Graduako ikasketetan euskaraz eskainitako ECTS kredituen ehunekoak.
- 58. Doktorego tesien kopurua euskaraz.

EHUagenda 2030

GARAPEN
IRAUNKORRARI
EKIN



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

